

«Lanaren ideologia sakratuari muzin egitea heresia da oraingo jendartean»

MARI OTXANDI Ikerlea, «Les nouveaux hérétiques» liburuxkaren egilea

Sarkozyren «gehiago irabazteko gehiago lan egin» esapideari modu bizian erantzuten dio idazleak, berrikitan Gatzuainek argitaratu liburuxkaren bidez

HARTZEA LOPEZ ARANA
Baiona

Soldatapeko lanaren errutina eta kalteen azalpena, ekonomia liberalaren kritika gogorra, nagikeria eskubidea... Mari Otxandik ez du eskularrurik jantzi eguneroko egiten dugun betebeharrari lepoa bihurtzeko. «Goiz esnatzea goresia den garai honetan, gaizki ikusia da ofentsiba orokor honen zergatiaz galderak pausatzea», dio lehen kapituluak. Lan egin bai, baina ez nolahi. Horixe da idazleak pasara zi nahi duen mezua, historian gertatu esperientzietan eta ideia korronteetan oinarrituz.

Heretiko berriak, zergatik izenburu hori? Erdi Aroko heretikoei erreferentzia egiteko. Paraleloa urruna da; noski, gaurko jendartea ez da berdina, baina historiak egituretan eta errepresio tresnetan ildo berrari atxiki dio. Erdi Aroan, heretikoei erlijio arrazoiengatik zieten eraso, baita botereak inposatu nahi zien ereduak ez zirelako sartzen ere. Kapitalismoaren kontra direnak arrazoi berberengatik ditu botereak gaur egun guduak. Lanaren ideologian arrunt finkatu sistema honetan, bekatzat hartua da haren errefusatzeko edo kritikatzeko, krimena ez bada: kartzelak pobrez eta aukari politikoz daude beteak.

Gehiago lan egin, gehiago irabazteko. Zer diozu indarrean dagoen esapide horretaz?

Gehiago lan egitea kontrol sozialaren areagotzeko ona da, norberkeria emendatzeko du, loraldietarako denbora murrizten du. Goizean lanera joateko jaiki, garraioan igo, eguna horretan pasa, etxera sartu, lotara joan... baldintza horietan, oso leku gutxi gelditzen da bestelako funtsezko jardueren gauzatze-ko. Maila pertsonalean eta kolektiboan dena kudeatu nahi duen botere egitura baten aurrean gaude, eta nahiago dugu beti gehiago galdegina, hura gabe antolatu baino.

«Lana soldatapekotzari lotzen diogu. Alta, ez dira sinonimoak; labore anitz ez dira pagatuak»

Gehiago irabazteari dagokionez, zertarako? Gehiago kontsumitzeko, ezta? Erosten dugun guztiaren beharra ote dugu? Beti behar berriak ari dira ekoizten, liberalismoaren izaera baita, kalitate gero eta txarragoko produktuekin, baldintza sozial penagarrietan eginak askotan. Prezioen emendatzearen aurka, garraio publiko doakoaren alde, etxebizitza eskubidearen alde egin beharrean, soldaten igotzeko eskatzen dugu. Eta diruaren kentzearen alde borrokatzen bagina? Utopiako dirudi, baina arazoari ez badiogu errotik heltzen, ez gara gurpil zorotik aterako.

Lana, orduan, eginkizun ezkorra da?

Ez; nire ustez, baikorra da, baina zertaz ari garen zehaztea hobe. Jende gehienentzat, lana eta soldatekotza gauza bertsuak dira. Diru mozkinaz, gainbalioaz ari gara lanaz mintzo garelarik. Alta, ez dira sinonimoak. Etxean konponketak egitea, haurren hezteak, ihardespen politikoaren antolatzeko, lanak direla ahazten zaigu. Ez da bakarrik bizipide materiala segurtatzeko zerbaite, jendartean bakoitzari existitzea eta iraunaraztea zilegitzen dion jarduera oro da lana. Ukaitearen nozioarekin

parekatzen dugu lana, zehaztapen murrizta da, izatearekin zerikusi handia duelako.

Eta nagikeria, eskubidea ote?

1880ean Paul Lafarguek idatzi tes-tu baten izenburua da, aski probokatzailera, era berean kapitalismoaren barne kontraesanak ongi laburbiltzen dituen. Nire liburuan xeheki aipatzen dut XIX. mendeko pentsalari sozialista honen teoria. Nagikeria nonberarentzako denbora gisa azaltzen du Lafarguek. Zehazkiago, izatearen denbora da, bizipide materialarentzat baino gehiago lan egiten dugun une hori. Jende askok ez du hartzen eta zaharmindurik bukatzen dute.

Langabeak, Frantzian bederen, alferztat jotzen dira maiz. Horrelakoak dira?

Hori sinetsarazi nahi digute, kriminalizazio mota bat da. Segitze-ko, gure sistemak langabeen beharra du, langileengan presioa egiteko, beldurra eragiteko. Gainera, badira langabezia oso txarto bizi-tzen dutenak, betidanik ikasi die-gulako lan gabe ez gabela ezer. Baina badira beren egoera profitatzen dutenak ere, ekinbide interesgarri anitz eginez, soldatapeko lana ba-lute, horretarako denborarik izan-en ez luketenak. Eta azkenik, ba-dira langabeziaren hautua egiten

dutenak, era politikoagoan, gaur egungo esklabotza modernoa onartzen ez dutelako, eta nahiago dutelako haienentzat eta jendarte-arentzat gauza hobeak egin. Haiei deitzen diet nik heretiko berriak.

Langile mugimenduetan soldatapeko la-nari ez zaio kritika hain erradikala egiten. Urrunetik dator kontua, nire ustez moral kristautik, «zure ogia zure izerdiarekin irabaziko duzu» esal-diarekin. Jateko sufritu behar de-naren ideia hori oso barneratua dugu. Ideologia komunistan, *Inter-nazionala* kantuan («nagia beste nonbaitera joanen da bizitzera»), gaur egun ere mugimendu anar-kista batzuetan onartua da iritzi hau. Jendarteari onura ala kaltea ekartzen dieten lanei buruzko ez-tabaida lotu behar zaio hemen, ezin da ekidin. Baita lanordue-na ere. Armagintza lantegian dabile-na ala auzoan aldizkari bat publi-katzen duena: nor da eraikitzaile-a-go? Dirurik irabazten ez duenari alferra dela egotzi behar zaio? Be-harbada jeloskortasun pixka bat

«Denek dugu barnean antzeko xedea: lana plazera izan dadila, ordu gehiago aisialdiari eman»

dago leporatze horretan. Gusta-tzen zaiona egiten duenari begi txarrez so egiten diogu ohituz, li-breago delako.

Euskal Herrian, lan egitea beti izan da ba-lioukazezina.

Euskal Herrian eta beste leku gu-zietan! Zorionez, hemen beste to-kietan bezala, ideologia hori gain-ditzen saiatzen direnak badira, nahiz eta gutxi izan. Etxebizitza hutsak okupatzen eta herri aban-donatuak berreraikitzen ditutze-nak adibidez, bestelako bizi mota baten hautua egiten dute. Nire us-tez, lana gure jendartean tradizio-nalki hartua den heinean, hortik ateratzeko gogoak baduzu, bizimo-duz aldatzen duzu. Eta alderan-tziz, eredu finkatuari muzin egitea erabakitzen duzularik, lanaren ideologiaren kitzikatzerara heltzen zara, nahigabe ere, baina prakti-kan ebidentzia da.

Zu zeu, nola bizi zara?

Ahal den bezala, jende guztiaren pareko. Eraikitzaileak diren jar-duerei lehentasuna ematen saia-tzen naiz, ala halabeharrenean jende-ei eta ingurumenari kalte gutxien egiten dienei. Nire lan gehienek ez didate dirurik ekartzen, aberatsak zaizkit jende harremanetan, elkar-tasunean, hausnarketan. Beste planeta batean bizitzen naizela iduri zait batzuetan, munduaren zati handienarekin desfasean. Al-ta, ez naiz bakarra eta gure barne barnean, denek dugu antzeko xe-dea: lana eta plazera loturik nahi genituzke, estresa baretu, egune-an ordu gehiago aisialdiari eman. Kargudun politikoei eta enpresek ez gaituzte horretara bultzatzen, guhaurrek altxatu beharko ditugu tresna egokituak.

